

KANALAK

Enpresaren balio proposamena bezeroi helarazteko komunikazio kanal hauek erabiliko ditugu:

Komunikazio kanalak:

- Gure enpresari buruzko informazio guztia biltzen duen web orria izango dugu. Jimdo-rekin web orria sortuko dugu eta hor sortzea dohainik izango da.
- Irratian gure enpresari buruzko iragarkiak jarriko ditugu. Iragarkian enpresako informazio guztia aipatuko da, iragarkiko azken partean telefono bat aipatuko da eta hor deitzerakoan gure langileekin jarriko dira kontaktuan bidaiak alokatzeko.
- Kaleetatik publizitate kartelak jarriko ditugu, kartelak guk diseinatuko ditugu eta bertan gure bidaieko tarifak, gure bulegoaren helbidea eta telefono zenbakia agertuko da.
- Kartel berberak etxeko postontzietan jarriko ditugu.
- Adinen egoitzetan gure kartel publizitarioak itsatsiko ditugu.

Salmenta kanalak:

- Bulego fisiko bat izango dugu, Elcano kalea, 8. zenbakian , hor gu egongo gara eta hortik deiak erantzungo ditugu, ere bezeroak etor daitezen dendara gure bidaiak fisikoki erosteko.
- Horretaz aparte, web orrian gure emaila, postontzia eta zenbaki telefonikoa agertuko dira gurekin kontaktatzeko eta modu horretaz bidaiak erosteko.

Hemen egongo da gure bulegoa:



Publizitatea:

- Gure kartela:

Itzul zaitez zure arbasoen herrira!!

Informazio gehiago www.silvertravel.com

**SILVER
TRAVEL**

60 Urtetik gorakoentzat

BIDAIAK ESPAINIA OSOTIK

Bidaia, logela eta janariak barne!